

# 3.Funtsezko elkarteak

Canvas ereduko hirugarren zati honetan, norekin eta zertarako elkartuko garen eta zelako aliantzak egingo ditugun zehaztuko dugu.

Argi dugu, lortzen ditugun aliantzak oso baliagarriak izango direla, gure enpresa aurrera eramateko eta ondo funtzionatzeko.

Aliantza horiei esker, hainbat baliabide lortu ahalko ditugu, baita gure enpresa ezagunagoa bihurtzeko aukera emango digu.

Ekintza desberdinak planteatzerako momentuan, aisialdi talde batekin kontaktuan egongo gara, hau da, ospitaletan dauden umeek, umeak izateko eskubidea dute, beraz, ekintza desberdinak planteatuko dizkiogu eta horren barnean, irteerak (baldin eta baimena badugu), esperimentuak, material desberdinak ekarri, etab planteatzea erabaki dugu.

Hau erabaki dugu, adituak direla uste dugulako eta haien laguntza ezinbestekoa izango delako umeen garapena aurrera eramateko.

Antzerkiak antolatzen dituzten taldeekin, ere harremanak sortuko ditugu, adibidez; pailazoen ikuskizunak egiten dituztenekin, horrela ospitalean dauden umeak haien egunerokotasunetik ateratzea lortu dugu eta momentu batez haien arazoak alde batera utziko dituzte.

Esku lanak edota ekintza desberdinak aurrera eramateko material desberdinak eskuratu beharko ditugu, horretarako material horiek dituzten enpresa edo elkarteekin harremanak izan beharko ditugu.